

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Iriondo Galarza

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1933-2020)*

Aurkibidea



Biografia



Ama Albizturkoa zuen eta aita Abaltzisketakoa. Bere gurasoak Urnietara etorri ziren eta Frantsesaren etxea hartu han bizi zen matrimonioaren lanbidea jarraitzeko. 36ko gerra hasi zenean, amarekin Albizturrera egin zuten eta bederatzi urte zituela itzuli ziren berriro Urnietara. Hamalau urte arte Zaldundegin hartu zuten apopilo, eta apaizak ere hartu zuen monagilo. Hamalau urterekin Andoainen egon zen arotz lana ikasten. Hamazortzi urterekin pasta fabrikari sartu zen, baina han astean irabazten zuena baino askoz gehiago irabazten zuen Aranoko Benta Berriko bileretan soinua jotzeagatik. Lan askotan ibili izan zen Patxi, eta azkenean emaztearekin drogeria moduko denda bat jarri zuten Hernanin, bertan 27 urte eginez.

Zintak

URN-031

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-05-28
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Ferietan jeneroa banatzen ibiltzen zen aita

- **Erref:** URN-031/002
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Tolosan bikote frantses bat zegoen; galerarekin eta hiru zaldirekin joaten ziren jeneroa banatzera ferietan. Haiek erretiroa hartu zutenean, Patxiren aitak hartu zuen lan hori. Handik gutxira, kamioia erosi zuen banaketa hura egiteko.</p>

2. Ganadua garraiatzen kamioian

- **Erref:** URN-031/003
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Pixkanaka Patxiren aitak negozioa zabaldu zuen, eta ganadua eramaten hasi zen kamioian.</p>

Transkripzioa

-Eta geo gure aita horri ba hasi zitzaion esaten baserritarrak eta:"Aizak, txekor bat zaukat salduba Donostira matadera..." Askotan ordun bidetikan hartzen zuten txekorra, basarritik, mendiz mendi oiñez eamaten zittuen matadera, e, ganaua.

-Mataderia nun zegoen?

-Donostin. Eta Donostia bidian zuk pentsa zazu ganau horrek ze galdu bihar zun eta nola ailligitu bihar zun. Hala gue aittai hasi zian esaten: "Aizak, zekor bat, eta hik eamango al hukek" eta. "Bueno, bai, bai". Haik basarritikan jaixten zuten bide oneaiño, kamiyo baztarrea edo jaixten zuten, eta hartaa gure aitak hartzen zun ganau hori eta iamaten hasi zan. Ta geo beste batzuk'e bai, eta batek bestiai, geo zabaldu itten zan kontua. "Aizak ba holakok eamaten dixkik, eta holako hasi dek, eta hau ta hoi ta. Eta hala behintzat geo hasi zaiten esaten: "Behia're hartuko al huke, kabittuko ote litzake behi bat. Behia ere..." Ta hartara atzeneako ba moduz moldatzen zan zekor bat eta behiya; zekor bat eta behiya ya sartzen zittun kamioi koskor hortan. Hala bazabillen eta, bueno, bee denboan aurea, geo ta lan gehiyo ta hor animatu da; ta ordun erosi zun hor atzian dakazun kamioi hoi.

3. Aitak gerran kamioia galdu

- **Erref:** URN-031/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:06:08. **Bukatu:** 00:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Aitak kamioi handiagoa erosi zuen ganadu gehiago eraman ahal izateko, eta pixkanaka indarra hartzen hasi zen. Gerra etorri zenean, Donostiako hipodromoa hegazkinak aireratzeko prestatu zuten. Patxiren aita han ibili zen laguntzen; gerora, gerrara eraman zuten aita kamioi eta guzti, baina kamioia galdu zuen.

4. Francoren garaian, lana bilatzeko zailtasunak

- **Erref:** URN-031/006
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:10:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Aitak gerran galdu zuen bere kamioia, eta berriro moldatu behar izan zuen bizibidea ateratzeko. Lagun bati esker lortu zuen lana, Francoren aldekoak ez zirenek zailtasun gehiago baitzituzten lana topatzeko. Azido sulfurikoa garraiatzen hasi zen kamioi batean, eta behin kamioiak su hartu zuen. Hala ere, aitak ez zuen lana galdu.

5. 9 urterekin lanean, baina eskolako maisuak ikasten laguntzen zion

- **Erref:** URN-031/009
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:11:42. **Bukatu:** 00:13:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Gerra garaian, Patxiren familia amaren senideen etxeetan banatuta egon zen. Gerra bukatutakoan, etxera itzuli ziren. Handik berehala, 9 urte zituela, Urnietako jatetxe batean hasi zen lanean; 14 urtera arte han ibili zen. Eskolako maisua taberna hartan egoten zen apopilo, eta arratsaldean Patxi harekin joaten zen eskolara.

6. Eliz mutil izan zenekoa

- **Erref:** URN-031/010
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:13:36. **Bukatu:** 00:14:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eliz mutil sartu zen. Goizeko 6etan izaten zen meza egunero; garai hartan 4 apaiz ziren Urnietan, eta txandaka ematen zituzten mezak goizetan.

7. Eliz mutila bai, baina ez inozoa

- **Erref:** URN-031/012
- **Iraupena:** 0:06:20. **Hasi:** 00:14:46. **Bukatu:** 00:21:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Lehen, udan, arratsaldeetan gari-bedeinkatzea izaten zen. Patxi eliz mutil zebilela, gari-bedeinkatze batean gertatutakoa kontatzen du: gosetea zen orduan, eta baserrietan janaria ematen zuten uzta bedeinkatzeagatik; apaizak disimuluan Patxi bidali egin zuen eta hurrengo egunean Patxik kontuak garbi utzi zizkion.</p>

8. Uztak bedeinkatzen ibiltzen zirenekoa

- **Erref:** URN-031/014
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:23:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Uztak bedeinkatzeko zer egiten zuten azaltzen du. Hori egitean, baserritarrek pribatuan egiten zioten bisita apaizari baserriko janariren bat emateko.

9. Hiru kategoriatako hiletak

- **Erref:** URN-031/015
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:23:33. **Bukatu:** 00:26:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Eliz mutila zenean, lau meza izaten ziren egunean. Hiletak hiru kategoriatakoak izaten ziren: zenbat eta gehiago ordaindu, orduan eta kategoria eta apaiz gehiago zituen hiletak.</p>

10. Baserrietatik elizara hilkutxa eramateko

- **Erref:** URN-031/016
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:26:22. **Bukatu:** 00:27:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Baserrietatik elizara hildakoaren hilkutxa eramateko zer egiten zen azaltzen du.</p>

Transkripzioa

-Hildakua rezibitzeko, hilkutxa elizara ailegatzen zanian, baserritakuak eta hola pentsatzen det haren bila, hilkutxaren bila ere jun egin biharko zan? Zeinek ekartzen zuan hura?

-Hua bizkarrian, beti familiarrak eta lagunak eta. Ta gu juaten giñan monagilluak zein apaiza zun barrio hartako basarri bat, hildako harren ze apaizekin zun kontatua, ta apaiz hua juaten zan. Gurutziakin gu. Urruti baldin bazan, gu juten giñan gurutziakin monagilluak bakarrik. Eta gero Urnietako sarreran hor puntu bat zeon, mahai bat jartzen zuten kamiyan, eta aurrena horra ailligitzian mahi horren gaiñian uzten zuten eta harea apaiza etortzen zan ya. Apaiza etortzen zan harea beste bi ziriolekin eta erdin gurutziakin, baiña orduako ni nola gurutziakin natorren ba ni jartzen nitzan gurutziakin. Neria baldin bazan, e.

-Zu zerorri bakarrik juaten ziñan?

-Bai. Gu bakarrik juten giñan baserrira. Ni monagillo bakarra.

-Jazkera diferentia zan?

-Gu jazkera beti zea jazten gendun, blusa txuria eta geo gaiñontzian bata beltza. Batzutan beltza. Geo zerbait baldin bazan askotan gorriya ibiltzen gendun, baiña beltza bestela. Bai. Eta hola juten giñan billa eta abar.

11. Hilkutxarekin okerreko bidea hartu eta atzera egin behar

- **Erref:** URN-031/017
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:27:47. **Bukatu:** 00:30:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Behin emakume bat hil zenean, okerreko bidea hartu zuten, eta atzera egin behar izan zuten.

12. Hiletako kanpaiak eta ohiturak

- **Erref:** URN-031/018
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:30:03. **Bukatu:** 00:32:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

Hilkutxa herrira iristen zenean, apaiza eta lau lagun zintekin etortzen ziren. Norbait hil bezain pronto, hil-kanpaiak jotzen ziren, eta oso tristea izaten zen hura entzutea. Haurrak hiltzean, kanpaiak beste era batekoak izaten ziren. Gorputza kalera iristen zenean elizara sartzeko, kanpai bereziak jotzen ziren.

13. Hilkutxak eta hilobiak

- **Erref:** URN-031/020
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:32:48. **Bukatu:** 00:33:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Elizan aldare nagusiaren barruan jartzen zen hilkutxa. Hilobiak lurrean sartzen ziren, eta gerora hasi ziren panteoiak eta horma-hilobiak egiten. Hildakoaren ingurukoek meza-dirua emateko ohitura zegoen lehen ere.

14. Hiletaren ondorengo hamaiketakoa eta lutoa

- **Erref:** URN-031/022
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Hiletaren ondoren, hamaiketakoa izaten zen. Elizkizuna goizean izaten zen, 10ak aldera. Lutoa eramaten zuten familiakoek.

15. Lutoaren epeak

- **Erref:** URN-031/024
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:35:38. **Bukatu:** 00:36:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lutoaren epeak nola izaten ziren aipatzen du Patxiren emazteak. Lutoan beltzez jantzi behar izaten zen. Umeak hiltzen zirenean ez zen lutoa eramaten.

16. Jatetxetik Andoainera lanera

- **Erref:** URN-031/026
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:36:54. **Bukatu:** 00:38:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

14 urtera arte ibili zen lanean jatetxean. Handik Andoainera joan zen lanera, nahiz eta nagusiak lan-baldintzak hobetuko zizkiola eskaini zion.

17. Andoainen arotzeria ikasten zebileneko lan-baldintzak

- **Erref:** URN-031/027
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:38:10. **Bukatu:** 00:40:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Andoainen 3 urte ibili zen lanean: astero jasotzen zuten jorñala eta larunbatetan ere lan egiten zuten. Arotzeria ikasi zuen bertan. Han zegoela hasi ziren "sábado inglés" egiten. Patxik, hala ere, lan egiten zuen larunbat gauetan Andoaingo lantegitik kanpo, baratzean.

18. Andoaingo beste lantegi batera, lan-baldintza hobeak zituela

- **Erref:** URN-031/028
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:40:08. **Bukatu:** 00:40:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

17 urte inguru zituela, Andoaingo beste fabrika batera joan zen lanera. Lantegi hartan paperaren pasta egiten zen. Soldata hobe jasotzen zuen han.

19. Soinua jotzen han eta hemengo erromerietan

- **Erref:** URN-031/029
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:40:54. **Bukatu:** 00:43:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Soinua jotzen ibiltzen zen gaztetan. Maisua Donostiakoa zen, eta gerora bakarrik moldatzen zen. Bileratan zer-nolako giroa izaten zen azaltzen du. Patxi bizikletaz joaten zen bileretara, eskusoinua bizkarrean hartuta; geroago, autobusez joaten zen. Bilera haietan estilo ugaritako dantza egiten zen. Erromeria arratsaldeko 5etatik 9etara izaten zen. Mutilak bileran geratzen baziren, 11k arte ere gelditzen ziren soinua jotzen. 200 pezeta eta otordua ordaintzen zizkioten bileretan jotzeagatik.

20. Bilerak amaitutakoan, mutilak bertan gelditu

- **Erref:** URN-031/030
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:43:39. **Bukatu:** 00:45:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Bilera amaitzean, mutilak geratzen ziren, neska-laguntzen joan ez zirenak. Herrira kanpotik norbait etortzen zenean, harrika hartzen zituzten leku batzuetan.

Transkripzioa

-Mutillak bakarrik gelditzen ziran bukaeran?

-Bai, bai. Neskak bere garai batian nobio zunak beri horrekin etxea ta; bestela libre zian mutillak-eta bertan afai-legia in eta. Haik'e armonia bihar zuen eta, tabernakuak'e armonia bihar zuten puxkat haik eukitzeko ta. Ta dena hola, bai.

-Han geo gelditzen zien mutil hain artian rekuentua ingo zan, hau falta dek eta hau harekin jun izango dek...

-A, hori bai, bai. "Bai, bai, zerbait sumatu dit nik eta. Hori horren laguntzea jungo huan". Ta bai, bai. Garai hortako kontuk hola zian, bai, bai.

-Ta neska-laguntzera auskalo nungo baserrira.

-Baita ere. Nik neoni honi laguntzea oiñez hemendikan Lastolaraiño juten nitzen. Hiru kilometro egongo dia, e. Hiru bat kilometro.

-Orduan neska-laguntzia ta, esaten due herri batzutara juten zanian norbait kanpokua, harrika edo...

-Ingurukuak? Bai, esaerak bazian hoik'e. Bai, bai, sortu dia holakuak, e. Esaten zan. Oiartzun aldian ta hola jende goor xamarra izan bihar zun hortan; eta esaten dittuzte holako gauzak, bai, e.

-Hernanin ez al zan holakoik?

-Nik ez det hortaiñoikoik zeatu. Ez. Nik neonek ez det izandu zerik eta iñorkin ez naiz sartu ta ez dakit ezerre. Ni honekin, besteik ez nun izandu lehen ta geo're hau hartu nun eta honekin izaten naiz.

21. Neska-laguna ezagutu eta pixkanaka soinua jotzeari utzi

- **Erref:** URN-031/031
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:45:06. **Bukatu:** 00:47:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Patxik emaztea nola ezagutu zuen azaltzen du. Dantza egiteko eskatu zion, ilunabarrera arte elkarrekin egon ziren; hortik aurrera, poliki-poliki ateratzen hasi ziren. Lehen errespetu handia zegoen neskekiko harremanean. Azkenean, soinua jotzeari utzi zion neskarekin egoteko.

22. Antonio Pavón Rodríguez beti gogoratzeko moduan

- **Erref:** URN-031/032
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:47:52. **Bukatu:** 00:50:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutza Donostian egitea tokatu zitzaion. Asteburuetan libre izaten zenean, etxera itzultzen zen. Soldadutzan behin jarri zioten zigorra aipatzen du.</p>

23. Soldadutzan zegoela sos batzuk ateratzen, igeltseroei laguntzen

- **Erref:** URN-031/033
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:50:13. **Bukatu:** 00:51:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzan barrakoieta egoten ziren. Soldadu batzuk kabo izaten ikasteko aukeratu zituzten. Arratsaldeetan, libre zegoenean, etxe inguruan lanean zebiltzan igeltsero batzuei laguntzen zien diru truk.</p>

24. Soldadutzan zegoela, ezkontza batean soinua jotzera joateko izandako komeriak

- **Erref:** URN-031/034
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:51:54. **Bukatu:** 00:56:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Behin Arantzazura joan behar zuen ezkontza batean soinua jotzera; soldadu zegoen garai hartan eta guardia egiteko txanda jarri zioten juxtu egun hartan. Azkenean, ezkontzara joateko nola moldatu zen azaltzen du.</p>

25. Kabo izatetik kabo lehena izatera

- **Erref:** URN-031/035
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:56:24. **Bukatu:** 00:57:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadu zegoela, kabo ugari aukeratu zituzten kabo lehena izaten ikasteko. Hala, igo egin zuten Patxi ere eta soldata jaso zuen.</p>

26. Obran lanean anaiarekin eta bere kontura

- **Erref:** URN-031/037
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 01:00:40. **Bukatu:** 01:02:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

16 urte inguru ibili zen obratan lanean anaiarekin batera. Oso desberdinak ziren anaia eta bera, eta bere kontura hasi zen orduan lanean. Pixkanaka lana ugaritzen joan zitzaion. Orduko lan-baldintzak aipatzen ditu.

27. Drogeria ireki eta 27 urte bertan lanean

- **Erref:** URN-031/038
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:02:56. **Bukatu:** 01:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Obran lanean zebilela, drogeria ireki zuen. Han lan asko egin zuten emazteak eta berak. 27 urte pasa dituzte hor. Inguruan merkataritza-gune handiak ireki zituztenean, ordea, kalte handia egin zion herriko merkataritxikiei.</p>

28. Txondorrak egitera etxetik janda

- **Erref:** URN-031/041
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:06:08. **Bukatu:** 01:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Umetan txondorrak egitera joan aurretik, etxean zerbait jaten zuen, goserik ez pasatzeko gero.

29. Txondorrak egiteko prozesua

- **Erref:** URN-031/042
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:08:00. **Bukatu:** 01:09:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Txondorrak nola egiten zituzten eta zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com